


HAZIAK
mintzo
Kakao ondotik txokolatera

Eguberriko giroan sartuz, eskolako ikasle guzietan txokolateari buruzko lan bat eraman dugu. Txokolatea gure inguruan errexki atzemaiten dugun gormandiza da, baina nundik heldu da? Nun ekoizten da? Nola egiten da? Galdera guzietan erantzuteko gure erakasleek lan desberdinak proposatu dauzkigute.

Lehenik, Bastidako txokolategiari buruzko artikulua bat landu dugu. Hor, Bastidako txokolate fabrikaren eta txokolatearen historia landu ditugu eta gure galdera des-

berdinak idatziz ezarri ditugu. Ondotik, txokolategiaren bisita egin dugu. Errotaren bisita egin eta, txokolatearen egiteko etapa desberdinak ikusi ditugu. Gabriel Auzi eta Anaiz Le Calvezeri esker gure galdera gehienari erantzuteko gai ginen. Lan hori gelan segitu dugu, lan plangintzetan dokumentu eta ariketa desberdin batzuekin landuz bai eta kantu eta olerki batzuekin. Segitzeko, taldeka jarri gira eta bakoitzak hastapeneko galdera berriz hartuz, xehetasun guzietan elkartu ditugu eta gure burasoen aurkeztu dugun erakusketa prestatu dugu. Bukatzeko, Bastidako txokolategiaren erosi lehen gaia-ekin, txokolatez-

ko goxokiak egin ditugu, baina horren egiteko matematiketan landu gaitasunak berriz erabili behar ziren! Ez zen hain errega... Hala ere, goxokiak egiten lortu dugu eta bakoitzak poltsa eder batekin etxerat sartu da familia untsa gozatzeko! Zuk ere txokolateari buruzko gauza batzuekin ikasi nahi dituzu? Ez bada gure eskola sare

sozialetan segitzea eta erantzunak aurkituko dituzu:
Facebook: Aiherrako Eskolalibroa
Ecoleprivée Ayherre
Instagram: ecole_privée_aiherrako_eskola

Aiherrako Eskola Libroko 2. eta 3. zikloko ikasleak




HAZIAK
mintzo

Xare proiektua

Aurten xare proiektua egin dugu gure klasean.

Lau astelehen goizetan etorri da Adrien Camino gure klasea: pilotari handia zen (munduko txapelketak egin zituen) eta bere espezialitatea xarea zen. Gaur egun erretretan da eta xareak fabrikatzen ditu.

Gure klaseak Harry Potter gaia duenez aurten (24 ikasle gira eta 4 etxetan banatuak gira: Gryffondor, Poufsouffle, Ser-

daigle eta Serpentard), etxe bakoitzak bere xarea fabrikatu du. Xare bat egitea biziki zehatza da eta Adrienek dena erakutsi digu hasi aitzin. Zailagoa izan da batzuentzat baina etxe guzietan lortu dugu. Azken etapa ekainean izanen da: txapelketa bat egingen dugu ostegunero Stella Mariseko frontoian!

**Stella Maris eskola
(CM1 eta CM2)**





Süehaileen kaserna

Ürrietaren 11n, ostiralearekin, Mauleko süehaileen kaserna bijitatü dügü.

Lehenik, kasernako güne desbar-dinak ikusi dütügü:

bülego nausia: larrialdi deiak gela hortan hartzen dira.

aldagelak: süehaileen kaskak, jauntsi babes-garriak, kapüxinak eta botak han baratzen dira. garajea: ibilgailü güziak aparkatürik dira: zitema kamiua, anbülantoa, untoitto kamiua eta hurrodiak.

Gero, kaskak iseatü dütügü eta jokü bat egin dügü: sütetako metalezko tütotx batekin balu bat eror erazi behar günüan.

Ürrentzeko, Kürütxe-Gorriak tailerrak proposatü deitzügü: üdüri zonbaitetarik abiatzez, eskolan edo etxen bazten ahal diren lanjerak identifikatzen ikasi dügü

eta salbatzen dütüen keinüak ikasten hasi dütügü.

Kasernatik lillüratürik arrajoan gira! Eskerrik hanitx Mauleko süehaileer!

Mauleko Jeanne d'Arc eskola



Txotxongiloen proiektua

Ürtarrilaren 7an, Senpereko San Josep eskolako CE1 eta CE2-ko haur elebidunak Tolosara joan gara txotxongiloen museoa bisitatzera.

Horrez gain, «Gure kanoa» ikusgarria ikustera joan gara Luhosora.

Bisita eta ikusgarria aurtengo proiektuaren abiapuntua ziren.

Izan ere, urtarrilean zehar, astearte eta ostiraleko, Battitt heldu da eskolara eta lagundu gaitu klasean irakurri dugun liburu baten erakustaldi bat muntatzeko.

Istoriaa laburbiltzeko, Josepe arrantzalea oharitzen da gero eta kutsadura gehiago badela itsa-

soan. Hainbestearino non erabaki duen arrantzale lana uztea eta arrantzatzen dituen objektuak saltzea!

Battittek, apainketa sortu dugu: Josepe arrantzalea, gure istorioaren pertsonaia nagusia, orean moldatu dugu, arrainak polistirenean zizelkatu ditugu, kartoinezko etxeak apaindu ditugu.

Testuari dagokionez, bakoitzak erran behar genuen erranaldia grabatu dugu.

Gure lana prest izanzen delarik familiei erakutsiko diegu.

Senpereko San Josep eskola

